

## V - BESTELAKOAK

### URAREN EUSKAL AGENTZIA MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

#### **Vitoria-Gasteizen pasabidea eraikitzea**

Espediente-zenbakia: AO-A-2016-0117

Eskatzailea: SUM Ensanche 21 Zabalgunea, SA

Salburuako Larrein 13. sektorea tartean Errekaleor ibaiaren gainean pasabide bat eraikitzeko lanak egingo dira. Pasabidea 20 metroko luzera eta 3 metroko zabalera izango ditu.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hamar eguneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten, Vitoria-Gasteizko Alkatetzan, edo lurralde-bulego honetan (Forondako Atea 9-11- 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abuztuaren 12a

*Mediterraneoko Arroen bulegoburua*  
**AZUCENA SALAZAR BAYONA**